

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 7koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2022an emandako zerbitzuak birbarematu ondoren indarrean dauden lan-poltsei dagozkien zerrendak argitaratzea xedatzen duena.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak, 2013ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, Agentziaren 2011rako lan-eskaintza publikoari dagozkion Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna, Koordinazio Teknikoko arduraduna, Lankidetzako teknikaria eta Genero Berdintasuneko teknikaria lanpostuetako lan-poltsetan langileak eratzea eta integratzea onartu zuen (2013ko azaroaren 20ko EHAA, 221. zk.).

Ebazpen horretan adierazten denez, lan-poltsen kudeaketa EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren arabera arautuko da. Era berean, xedatzen du akordio horren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak dituzten lan-poltsetako langileak birbarematu egingo direla, EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan emandako zerbitzuen arabera.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da, lan-poltsei buruzko akordio hori indargabetzen da, eta lan-poltsen birbaremazioari buruzko 35. artikuluan xedatzen da kideen puntuazioa 0,003 puntu igoko dela aurreko urtean izendapena edo kontratua eragin duen poltsan lan egindako egun bakoitzeko. Ondorioz, egindako birbaremazioak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, emandako zerbitzuak hartzen ditu.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dauden lan-poltsa propioak birbarematzea. Birbaremazio horretan, 0,003 puntu emango zaizkie Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian lan egindako egun bakoitzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzea arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan ezarritako ezaugarriak betetzen dituztenei.

2.- Emandako zerbitzuen birbaremazioaren ondoriozko lan-poltsen ordena berria 2024ko otsailaren 8an jarriko da indarrean.

3.- Birbaremazio horren ondoriozko zerrendak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko www.elankidetza.eus helbidean argitaratzeko agintzea.

4.- Lan-poltssetako langileei jakinaraztea lan-poltsak kudeatzeko zerbitzutik egindako edo jasotako deiak grabatu ahal izango direla, eta datuak aurkatzeko, eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituztela, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena www.elankidetza.eus helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 7a

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARIA